

### LITERATUR KRITIKA

**“NIRI EZ ZAIT FUTBOLA GUSTATZEN. ETA ZER?”,  
ANDONI EGAÑA Elkarlanean, 2000**

#### **Ardiek baloirik balute...**

Andoni Egañaren “Niri ez zait futbola gustatzen, eta zer?” liburua, Elkarlanean argitaletxeak konplexuak uxatzeko edo ezberdintasunak modu baikorrean hartzen edo ulertzen jakiteko asmoz sortu duen “Eta zer?” bildumako liburuetariko bat da. Bilduma osatzen duten gainontzeko ipuinak, Silvia Ugidos-en “Nire aita etxeakoandrea da, eta zer?”, Anjel Lertxundiren “Nik erremerre hitz egiten dut, eta zer?” eta Seve Callejaren “Potoloa naiz, eta zer?” dira.

“Niri ez zait futbola gustatzen, eta zer?” ipuineko protagonistari, tituluak dioen bezala, ez zaio futbola gustatzen. Berari, animaliak gustatzen zaizkio: intsektuak eta narrastiak. Aita ostera, futbolzale amorratua da. Arrazoi hori dela medio, aitak bere semea “arraroa” dela uste du eta semeari ere bere aita “arraroa” iruditzen zaio, futbola zozokeria handi bat dela uste duelako. Bi arrazoi azpimarratzen ditu protagonistak futbola ez gustatzeko: lehena, gelakoek behin, futboleant jokatzeko bere sugandila ontzia hartu eta apurtu ziotelako, eta bigarrena, ez zaiolako ardiak bezala denak gauza bera egiten ibiltzea gustatzen.

Ipuinaren kanpo egitura borobila da, hasierako ideia azpimarratuz emango baitio Egañak bukaera ipuinari. Kontakizunean zehar arrazoiak ematen joango zaigu futbola zergatik ez zaion gustatzen azalduz; hasieran egiten duen baieztapena defendatuko du ipuin guztian zehar, defentsa horretan egingo dituelarik idazleak bere ekarpenak.

Barne egituraketa eta denboraren tratamendua oso egokia ez bada ere, Andoni Egañaren ekarpena, futbola gustuko ez duen baten ikuspegia azaltzean datza eta "arraroa" terminoa erlatibizatzean. Horrela bada, Egañak hiru pertsonaia mota deskribatuko ditu, pertsonaia bakoitzari adjektibo edo kalifikatzaile bat erantsiko diolarik. Hala nola, protagonista nagusia "arraroa" izango da, aita "gaixoa", eta lagunak "ardiak".

Andonik protagonistaren ahotan jartzen dituen ideiak edo ekarpenak ardiaren irudia eta frustrazioaren ideia dira. Ardiaren irudiari dagokionean, futbola gustatzea eta futbol jarraitzaile izatea, finean, ardiak bezala ibiltzea dela dio, denak batera eta batek esaten duenari jarraika. Ideia honekin batera, ardi beltzaren figura azpimarratzen du protagonistak, hau da, artaldean ezberdina denarena. Artaldean beti batek esaten duena egiten dela dio eta hori pertsonalitate falta iruditzen zaio, berezitasunik ez izatea, alegia. Frustrazioaren ideia kasuan, ezinaren aurrean hartzen ditugun baliabideen edo eta ihesbideen aurkezpena egiten du. Ideia gordinegia, beharbada, ume baten ahotan jartzeko. Aitaren futbolzaletasuna frustrazio baten ondorio gisa azaltzen du protagonistak. Eta berari agitutako gertakizun batekin konparatuko du. Protagonistak ezin du muskerrik harrapatu zaila delako, eta horregatik, musker baten argazkia jarri du karpetan eta egun guztia hari begira pasatzen du, aitak bere gaztetako futbolari argazkiari bezala. "Futbolari ona izan balitz", dio protagonistak, "aitak ez luke argazkiari horrenbeste begiratu beharrik izango".

"Arraroa" terminoak ere erabilera edo esanahi ezberdinak izango ditu Egañaren ipuinean: semeari animaliak gustatzea,

aitarentzat, arraroa izatea da; baloiaren atzetik ibiltzea, protagonistarentzat, arraroa da; baita gola sartu ondoren txorakeriak egiten ibiltzea ere. Ardi beltza ere, artalde zuriaren barruan, arraroa da. Baina kasu honetan, arraro izate horixe da, hain zuzen ere, protagonistak aldarrikatuko duena.

Protagonistak berak markatzen du distantzia futbolzaleen eta bere Niaren artean. Erabiltzen duen simolarekin gainera, bere burua ardi beltzarekin parekatzen du eta lagunak, denak batera doazen artaldearekin.

Egañak kontakizunari zentzua emateko erabili dituen espazioa etxea eta ikastolako jolastokia dira. Bai batean eta bai bestean, protagonistak bere leku pribatuaren aldarrikapena egingo du. Bere espazioa markatuko du. Leku batean zein bestean, protagonistarena bakarrik izango den espazioa gorai-patzen da. Jolastokia ez da berea bakarrik litzatekeen espazioa, eta ondorioz, arrotz zaio.

### **...futbolariak izango lirateke**

"Niri futbola ez zait gustatzen, eta zer?" ipuina bildumako ezberdinena dela esan genezake. Ipuin honetan ez dago protagonistaren futbolzaletasun eza ulertarazteko edo azaltzeko gertatuko den zerbait. Ez dago "Eta zer?" saileko beste hiru ipuinetan bezala, arazoaren aurrean irtenbidea edo ulertze bidea eskainiko duen gertakizunik.

Protagonistak tonu ironikoa eta mendekua nahi duenarena erabiliko du futbola ez zaiola gustatzen azaltzeko. Haserreak eraginda bezala.

Pertsonaia ezberdinen jarrerak kontrajarriak izaten bukatzen dute; irakurleari utziko zaio bere irakurketa propioa egiten.

*Ana Urkiza*